

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroekin eukiko dugun harreman mota:

Gure enpresa web orri bat da, eta horregatik automatizatua da, automatizatutako zerbitzua hain zuzen. Baina web orrian erregistratu ondoren, gure bezeroekin biltzar bat edukiko dugu, haien talentua frogatzeko eta haiek hobeto ezagutzeko, eta alde horretatik pertsonala da, zehatzago dedikatutako laguntza.

Hau izango da jarraituko dugun prozesua:

1. Hasieran bezeroekin izango dugun harremana **automatizatutako zerbitzua** izango da: haiek haien bideoa, margolan baten argazkia, edo idatzitakoaren zati bat bidaliko digute.



2. Guk bidalitutakoari filtroa pasatuko diogu, eta egokia dela erabakitzen badugu haien profila web orrian jarriko dugu.

3. Azken pausua, haiekin batzar bat eukitzea da, hau da, gure harremana haiekin **dedikatutako laguntza** izango da, bakoitzari zerbitzu desberdin bat eskainiko diogulako, haien talentuaren eta lortu nahi dutenaren arabera.

